



EBAZPENA, Langileriaren Kudeaketa zuzendariarena; honen bidez izangaiek lortutako behin betiko puntuazioak argitara ematen dira, Langileriaren Kudeaketa zuzendaritzako administrazio-unitateek barematu beharreko merezimenduengatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretan (Hezkuntzako sailburuaren 2025eko otsailaren 24ko Aginduaren bidez deituak).

Hezkuntzako sailburuaren 2025eko otsailaren 24ko Aginduaren 8. oinarriarekin bat etorritz (Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretarako deialdia egiten duena), honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Argitara ematea izangaiek merezimenduengatik lortutako behin betiko puntuazioak, baldin eta meritu horiek barematzea Langileriaren Kudeaketa zuzendaritzako administrazio-unitateei badagokie (honako hauek izan ezik: etengabeko prestakuntza I. eranskineko III.1 atalaren eta II. eranskineko II. atalaren arabera; eta argitalpenak eta berrikuntza- eta esperimenduzko proiektuak II. eranskineko III.2.1 eta III.2.3 atalen arabera).

Bigarrena.- Merezimendu horien bidez lortutako puntuazioen behin betiko zerrenda hemen argitaratzea:

<https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartu – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2025eko EPE. Bigarren Hezkuntza» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – adierazi kidegoa eta espezialitatea – «Emaizak» – «Lehiaketa-fasea» – «Partziala».

Hirugarrena.- Behin betiko puntuazioen aurka ez dago errekurtsoa jartzerik; interesa duten izangaiek berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango dute izangai hautatuen behin betiko zerrendaren aurka (deialdiaren 10.4 oinarrian aurreikusitakoa).

Gasteizen, sinatzen den egunean.

Langileriaren Kudeaketa zuzendaria,
UNAI NIETO MARIJUAN

